


**VILLA MATILDE**  
D MAILA**ATEGORRIETAKO GALTZARA ZAHARRA 159**

Egile ezezaguna, 1880 inguruan. Luis Elizalde, 1908.

**Deskribapena**

Villa hau, gaur egun, oso aldatuta dago eman dioten irakaskuntza erabilerarekin. Hala ere, etxearen kokapen eta neurria bereziak dira leku horretarako, menditik Ategorrietako hiribiderako bertarako jaitsiera izan den mazelan. Tarte berde gisa mantendu da bloke erako eraikinen artean, nahiz gaur egun altuera bateko pabilioiak eraiki dituzten partzelan. Arkitektura berezia du, *manoir* edo landako jauregiaren eragin frantsesari lotu baitzaio, hiriko zenbait villatan ikusten dugun tipologiari alegia. Lehen ezaugarritzat mantsarda eta pabilioi erako estalkiak aipa ditzakegu, eta ordena klasikoaren erreferentzia diren neurri handiko bao bertikalen eskala. Aldaketa larri batzuk badauzka, esaterako hegoaldeko terraza, eta baita iparreko fatxadako baoak eta mantsardako iparreko isurkia ere. Erdisotoa, beheko solairua, lehen solairua eta teilatupeko bigarren solairua dauzka. Frontoi-txapitulak dauzka mantsarda estalkiaren isurki pikoan, kanon klasizistetatik urrundu samartutako moldurazioarekin batera. Bestetik, errotari erako txapitula batek erlaitza mozten du. Planoan diseinatuaz bestelako aldaera bat da, goiko errematearen eta arbelezko isurkiaren arteko topalekuan estankotasuna lortzearen gutxi gorabehera inprobisatutako soluzio batez. Bi berezitasun dauzka ohiko hotel frantsesarekiko, batetik estalki poligonal batez errematatutako maila biko *bay window*, eta bestetik goranzko bolumena, lauki-oinplanoa eta mantsardaren aldaera gisako estalki inperiala dauzkana bera, goiko isurki ia-ia erabat lauekin.

**D mailako babes erregimen espezifiko**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: atzealdeko fatxada, hegoaldeko plataforma eta partzelako pabilioi guztiak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: fatxadetako apaindura erliebeak eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.